

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 357/2021 Erabakia. Onespena ematea Arkautiko Administrazio Batzarreko kide kudeatzaileak izendatzeari

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik daudela bi kargu Arkautiko Administrazio Batzarrean, Selene Ibarra Jiménezek eta Raúl García de Albéniz Ruiz de Alegríak, lehen eta bigarren batzarkideek, hurrenez hurren, karguari uko egin izanaren ondorioz, eta kargu huts horiek bete gabe daudela, ez baitago hautatutako ordezkorik.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak, ezartzen dituenak Arabako administrazio batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak, 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, egoki jotzen da pertsonak izendatzea administrazio batzar horretan dauden kargu hutsak kide kudeatzaile gisa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 342/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio, besteak beste, administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko eginkizuna, eta eginkizun horren barruan sartu behar da kargu horiek betetzeko foru aldundiak izendatzen dituen pertsonak proposatzea.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orokaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Izendatzea Iñaki Zubizarreta Díaz de Guereñu Arkautiko Administrazio Batzarreko lehen kide kudeatzaile eta Jesús María Rodríguez Puente bigarren kide kudeatzaile.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, erregidore lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezian jabetuko dira karguaz aipatutako kide kudeatzaileak. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egin behar da bilkura hori.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orokaren Sailak argitara dezala erabaki hau ALHAOn.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA